

2008ko ZERGA BILKETA EAEn
ELAren BALORAZIOA

ZERGA ARLOA EAEn

1. HITZARTUTAKO ZERGEN BILKETA EAEn. 2008koa ETA 2007koarekiko BILAKAERA.

Euskal Autonomia Erkidegoko (EAEko) Foru Aldundiek **12.834,2 milioi euro** bildu dituzte zergen bidez 2008ko ekitaldian. Hortaz, 2007ko zerga-bilketan 937,9 milioi gehiago bildu zirenez, %6,8ko gutxipena egon da.

Hona hemen 2008ko zerga-bilketa, zergaz zerga:

- PFEZaren bitartez, 4.458,2 milioi euro (guztizkoaren %34,7) bildu dira.
- BEZaren bidez, 4.265,5 milioi euro (bildutako guztiaren %33,2).
- Sozietateen gaineko Zerga dela medio, 1.692,2 milioi euro (%13,2) jaso dira.
- Zerga Bereziek 1.373,7 milioi euroko diru-sarrerak (guztizkoaren %10,7) eragin dituzte.
- Bildutako gainontzekoa, hots, 1.044,6 milioi euro (bilketa osoaren %8,1), beste zergei, tasei eta zenbateko txikiagoko beste diru-sarrera batzuei dagokie.

PFEZa %4,5 handitu da aurreko urtealdikoarekiko. Gainerako zerga guztietan, kobrantza urritu egin da, alegia, 2007ko ekitaldian baino diru gutxiago bildu da beraien bitartez. Ildo horretan, Sozietateen gaineko Zergak izan du lermarik handiena (-%16,8), eta horren ostean, BEZak (-%11,8), eta Zerga Bereziek (-%1,5).

Zehatz esateko, Sozietateen gaineko Zergaren bidez, 341,9 milioi euro utzi dira bildu gabe, eta BEZa medio, 571,9 euro; hau da: 913,8 milioi euro geratu dira biltzeke, bi zergak batera harturik.

ZERGA PISUTSUENEN BILKETA, ZERGA MOTAREN ARABERA; EGITURA ETA

BILAKAERA. EAE, 2008-2007¹⁵

	2008		2007-2008
	Milioi €	%	Aldak. %
BEZ	4.265,5	33,2	-11,8
PFEZ OSOA	4.458,2	34,7	4,5
SOZIETATEEN Z.	1.692,2	13,2	-16,8
Z. BEREZIAK	1.373,7	10,7	-1,5
GAINERAKOAK	1.044,6	8,1	-15,8
GUZTIRA	12.834,2	100	-6,8

Iturria: Eusko Jaurlaritza

Zerga bakoitzak izan duen bilakaera ezberdinaren ondorioz, zerga-bilketaren egitura aldatu egin da, diru-sarrerak zuzeneko zergetatik ala zeharkako zergetatik datozen aztertzean. Hauxe izan zen 2008ko emaitza:

- Zeharkako zergen bidez, 6.119,3 milioi euro bildu dira, hau da, bilketa osoaren %47,7.
- Zuzeneko zergek 6.601,2 milioi euroko diru-sarrerak eragin dituzte, alegia, guztizkoaren %51,4.

Zuzeneko zergak %1,6 urritu dira 2008an zehar, eta zeharkakoak, %11,9. Zeharkako zergen larma handiago horren ondorioz, guztizko bilketaren gehiena zuzeneko zergen bidez sartzen da.

HITZARTUTAKO ZERGEN BILKETA, ZERGA MOTAREN ARABERA. EGITURA ETA
BILAKAERA. EAE, 2008-2007¹⁵

	2008		2007-2008
	Milioi €	%	Aldak. %
ZEHARKAKO Z.	6.119,3	47,7	-11,9
ZUZENEGO Z.	6.601,2	51,4	-1,6
GAINERAKOAK	113,7	0,9	-4,0
ZERGA GUZTIAK	12.834,2	100	-6,8

Iturria: Eusko Jaurlaritza

2008an **zuzeneko zergen** bidez bildutakoa aztertzean, errenta motari erreparatzen badiogu, hauxe ageri da:

- Lanaren errentek (PFEZaren bidez zergapetuek) 4.322,2 milioi euroko diru-sarrerak eragin dituzte, hau da, zuzeneko zergen %65,5.
- Enpresarien, profesionalen eta kapitalaren errenten zerga-bilketa 2.288,9 milioi eurokoa izan da, alegia, zuzeneko zergen ondoriozko diru-sarreraren %34,7. Errenta mota hori honela zergapetzen da:
 - Sozietateen Zergaren bitartez, 1.692,2 milioi euro jaso dira, hots, zuzeneko zergen bidez bildutakoaren %25,6.
 - Enpresarien, profesionalen eta kapitalaren PFEZa dela medio, 596,7 milioi euro bildu dira, %9,0 alegia.

PFEZn, lan-errentak dira aurreko urtealdian baino diru-bilketa handiagoa eragin duten bakarrak (2007an baino %7 gehiago, hain zuzen ere). Enpresarien errentak %9,7 gutxitu dira 2007koetik, nahiz eta murrizte horren arrazoi bakarra Sozietateen Zergaren beherapena (%16,8koa) den. PFEZaren bidez zergapetutako enpresari-errentak %19,2 handitu dira.

ZUZENeko Zergen Bilketa, Zerga Motaren Arabera. Egitura eta BILAKAERA. EAE, 2008-2007¹⁵

	2008		2007-2008
	Miloi €	%	Aldak. %
LANAREN PFEZ	4.322,2	65,5	7,0
- SOZietATEEN Z.	1.692,2	25,6	-16,8
- ENPR., PROF., KAP. PFEZ	596,7	9,0	19,2
ENPR., PROF., KAP. ERRENTAK (*)	2.288,9	34,7	-9,7
GAINERAKOAK	-10,0	-0,2	-107,6
ZUZENeko Z. GUZTIAK	6.601,2	100	-1,6

Iturria: Eusko Jaurlaritza

(*) Sozietateen gaineko Zerga + Enpresarien, profesionalen eta kapitalaren PFEZ

Ondorioztapenak

Hitzartutako zergen bilketa %6,8 urritu da 2007koaren aldean.

Bilketaren urripen horren arrazoi bakarra enpresarien, profesionalen eta kapitalaren errentetan izan den gutxipena izan da, %9,7koa, hain zuzen.

Bestalde, bilketan hazi den alderdi bakarra lanaren errentak izan dira, %7,0ko gehikuntzaz, zehazki.

Zuzeneko zergak subjektuaren ahalmen ekonomikoaren arabera ordaintzen dira. Bilketari erreparaturik, Administrazio Publikoak kobratzen dituen 100 eurotik 65 lanaren errentetatik datoz, eta 34 euro, berriz, enpresarien, profesionalen eta kapitalaren errentetatik. Garatzen ari den zerga-politikoaren eraginez, datuok ez datoz bat, inondik ere, aberastasunaren

banaketari buruzkoekin, non sortutako diruaren %48 soldatakoen ordainsarietara (lanaren errentetara) eta %42 enpresarien, profesionalen eta kapitalaren errentetara baitoaz.

2. HITZARTUTAKO ZERGEN PRESIO FISKALA EAEn. 2008koa eta 1998koarekiko


BILAKAERA

2008an, hitzartutako zergen **presio fiskala BPGd-aren %18,5koa** izan da; hau da: ekonomian sortutako 100 eurotik 18,5 bideratu dira hitzartutako zergen bilketara. Zeharkako zergen presio fiskala BPGd-aren %8,8koa izan da, eta zuzeneko zergena, BPGd-aren %9,5koa.

Hitzartutako zergen presio fiskala azken urtealdietan zertxobait areagotu bada ere, 2008an 2,4 puntu jaitsi da, eta urteotako mailarik baxuenean geratu da. Izan ere, 1998an bertan ere (urte horretan hasi ziren kudeatzen zerga berezi guztiak), 0,5 puntu handiagoa zen eta.

HITZARTUTAKO ZERGEN PRESIO FISKALA, GUZTIRA, ZUZENEKOENA ETA

ZEHARKAKOENA. EAE, 1998-2008 (BPGd %)




Iturriak: ELAren Azterketa Bulegoak Eusko Jaurlaritzaren eta Eustaten informazioan oinarriturik prestatua

Zuzeneko zergen presio fiskala honako hau izan da, errenta motari erreparaturik:

- 2008an, Lanaren PFEZarena BPGd-aren %6,2koa izan da, hots, aurreko urtean baino 0,1 puntu handiagoa eta 1998an baino 0,3 puntu txikiagoa.
- Enpresarien, profesionalen eta kapitalaren errenten presio fiskala, %3,3koa, 0,5 puntu urritu da aurreko urtealditik, 1998an baino 0,3 puntu handiagoa bada ere:
 - o Sozietateen gaineko Zergaarena BPGd-aren %2,4koa izan da, alegia, 2007an baino 0,7 puntu urriagoa eta 1998an baino 0,3 puntu handiagoa.
 - o Enpresarien, profesionalen eta kapitalaren PFEZ BPGd-aren %0,9koa izan da, hau da, 2007an baino 0,1 puntu handiagoa eta 1998an bezalakoa.

HITZARTUTAKO ZUZENENKO ZERGEN PRESIO FISKALA.

EAE, 1998-2008 (BPGd %)



Iturriak: ELAren Azterketa Bulegoak Eusko Jaurlaritzaren eta Eustaten informazioan oinarriturik prestatua


Zeharkako zergen presio fiskala honakoa izan da:

- BEZarena BPGd-aren %6,2koa izan da 2008an, 2007tik 1,1 puntu jaitsita.
- Zerga Bereziarena, BPGd-aren %2,0koa, aurreko urtean baino 0,1 puntu txikiagoa izan da, bai eta 1998an baino 0,4 txikiagoa ere.

Hortaz, zeharkako zergen presio fiskala 1,7 puntu urritu da 2007az gero, eta 0,8 puntu 1998tik hona. BEZaren presio fiskala 1998an bezalakoxea da, %6,2koa zehazki, 2007tik 1,1 puntu jaitsita.

HITZARTUTAKO ZEHARKAKO ZERGEN PRESIO FISKALA.

EAE, 1998-2008 (BPGd %)



Iturria: ELAren Azterketa Bulegoak Eusko Jaurlaritzaren eta Eustaten informazioan oinarriturik prestatua

3. ONDORIOZTAPENAK

1.- 2008an, presio fiskala, 2,4 puntu gutxitu ostean, BPGd-aren %18,5ekoa izan da, hots, azken urteetako txikiena.

2.- 2008ko bilakaerak erakusten duenez, zuzeneko zergak pisu handiagoa hartzen ari dira zeharkakoen aldean. Hori, teorian, aurrerapausotzat hartu liteke, errentaren arabera zergapetzen den portzentajea handiagoa delako. Baina egitate hori ez da izan zergadun bakoitzaren egoera ekonomikoa aintzat hartzen duten zerga-politika aurrerakoien ondorio. Aitzitik, zeharkako zergen bilketa %11,9 eta Zuzeneko zergena %1,6 urritu direlako gertatu da hori (PFEZ handitu eta BEZa eta Sozietateen Zerga gutxitu direlarik). Finean, hauxe da benetako emaitza: zerga-bilketaren banaketa okerragoa.

3.- Zehaztasun handiagoz begiraturik, harrigarria da 2008an BEZaren bilketa %11,8 gutxitu izana, etxeetako azken kontsumoa, termino errealean, 1,1 puntu hazi den arren (Eustaten datuen arabera). Bilakaera hori erabat bateraezina litzateke; izan ere, kontsumoa hazten den guztietan, BEZak ere hazi beharko luke (kontsumoa zergapetzen duelako). Horren harira,

zerga horretan dagoen iruzur handia areagotu egin dela eta aipatutako emaitza horrexek eragin duela pentsatzea da zentzuzkoena.

4.- Sozietateen Zergaren bitartez bildu den zenbateko txikiagoa zerga horretan egindako beherapenaren ondorio da, abagune ekonomikoa aldatzearen ondorio barik. 2008an Sozietateen Zergaren bidez bildutako gehiena 2007ko urtealdiko likidazioari dagokio.

5.- Zerga-politika errotik aldatu behar da:

- Zerga-iruzurraren aurka borrokatu.
- Azken urteetan ezarritako zerga-erreformak alderantz.

6.- Ogasunek gizarte-ikuspuntutik bidegabea den eredua darabilte oraindik ere (Ondarearen gaineko Zerga kendu, Sozietateen gaineko Zerga berriz murriztu,...). Horrez gain, politika hori abagune ekonomiko honetan behar dugunaren guztiz kontrakoa da, une honetan sektore publikoaren eginbeharra gizarte-gastua handitzea delarik, horretarako baliabideak behar dituelako.